Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Eizmendi Manterola Basarri

Zarautz, Gipuzkoa (1913-1999)



Aurkibidea

Biografia



Errezilgo Granadaerreka baserrian sortu zen, baina gazterik joan zen Zarautzera bizitzera. Bertsolari eta kazetari ofizioz, hizketarako eta idazteko zuen trebeziak jende askoren estimua ekarri zion. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia birritan irabazi zuen, 1935ean eta 1960an.

Zintak

ZAR-117

- **Proiektua**: Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Jauregi Letemendia, Mikel
- **Data**: 1987-01-01
- **Iraupena**: 12 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Jauregi Letemendia, Mikel

ZAR-129

- **Proiektua**: Herri Irratia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Iriondo, Joxe Mari
- **Data**: 1980-04-18
- **Iraupena**: 31 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Emalea**: Olano, Markel

Pasarteak

1. Biografia laburra

- **Erref**: ZAR-117/002
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:13. **Bukatu**: 00:01:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bere burua aurkezten du hizlariak, eta bere biografia laburki kontatzen du.

Transkripzioa
- Iñaki Eizmendi 'Basarri' naiz, milla bederatzirehun ta hamahirugarren urtean jaio nintzan Errezilko partean aurkitzen dan Granada baserrian. Sei urte ninduan nituan garaian, gurasoak Azpeitira bidali ninduten lehengusu baten etxera. Sei urtetatik zazpitara, Azpeitiko eskola batean ibili nintzan pixka bat. Gero, zazpi urte nituala, etorri ziran gurasoak honuntza, eta ni ere bai haiekin batera. Ta geroztik Zarautzen bizi naiz.

2. Zarautz lehen eta orain

- **Erref**: ZAR-117/003
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:01:03. **Bukatu**: 00:02:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Lehen Zarautz jostailu baten antzekoa zen oraingoaren aldean. Oso txikia zen, eta denek ezagutzen zuten elkar.

Transkripzioa
- Konta iezaiguzu nolakoa zen Zarautz Zarautz herria zure gaztaroan, eta zure gaztaroko eta oraingo Zarautzen desberdintasunak.
- Garai hartako Zarautz jostaillu bat bezala zan gaurkoarekin konparatzeko. Gu etorri giñan garaian, hiru milla ta zazpirehun edo zortzirehun bizilagun ziran Zarautzen, gaur hamasei milla diran bezala. Hortatik konturatuko zerate zer alde dagon lehengo Zarauztik gaurkora. Orduan danok alkar ezagutzen genduan, gutxi giñan, familikoak bezela, edo famili bat bezela; ta gaur, berriz, teillatupekorik ere askotan ez degu ezagutzen.

3. Zarauzko giroa lehen

- **Erref**: ZAR-117/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:
Zarautzen lehen pertsona xelebre gehiago zegoen. Diru gutxi egon arren, jendea pozik bizi zen. Sagardotegi-giroa zegoen, eta ez zegoen gorrotorik politika zela-eta. Umore ona, kantak eta bertsoak ziren orduan nagusi.

Transkripzioa
- Ezagutu al zenuen Zarauzko pertsonai xelebre edo garrantzitsu bat?
- Pertsona xelebreak bai, baziran, eta beharbada orain baiño gehiago. Herri txikia zan, baiña baziran jende xelebreak. Orain danak hillak dira, ta izenak ematea ez litzake egokia izango; bakarren batzuk ahaztu egingo nituzke, ta ez naiz hortara ausartzen. Baiña diro gutxi zan orduan. Hala ere, jendea alai eta pozik bizi zan, sagardotegi asko, sagardotegi giroa, eta gorrotorik ez zan ezagutzen. Politikarik ere ez zan, esate baterako, ez behintzat orain bezela txartuta jendea. Eta beste sanidade bat: kantu ederrak, bertso ederrak, tokan egin, umore ederra sagardotegitan, ta hoixe, beste Zarautz bat zan. Zuek gaztetxok zerate, eta ez zerate konturatu ere egingo zer aldaketa egin duan urte hauetan.

4. Euskara lehen eta orain Zarautzen

- **Erref**: ZAR-117/005
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Zarautzen euskara hutsa egiten zen lehen. Gutxi batzuek erdaraz egiten zuten, baina gainerakoak euskaldun huts-hutsak ziren. Orain kanpoko jende asko dagoenez, asko galdu da euskara. Ikastolei esker piztuko dela espero du.

Transkripzioa
- Zer hizkuntz hitz egiten zen gehien zure gaztaroko Zarautzen?
- Zarautzen euskara hutsa hitz egiten zan. Egongo ziran mojatxoren batzuk, juezen bat, ta karabiñero batzuk eta guardia zibillak, eta eskola-maixu batzuk erderaz zekitenak, bueno, egiten zutenak besterik ez zekitelako. Gaiñuntzian, herri guztia huts-hutsik euskalduna zan, euskaldun huts-hutsa; baita karabiñero kumeak ere, karabiñeroen umeak ere euskeraz ikasten zuten, beste herrikoekin behar bezela konpondu ahal izateko.
- Eta orain?
- Orain kanpoko jendea ere erruz dago hemen. Orain, alde hortatik, asko galdu dala esan behar. Ikastolari esker ta abar, beharbada berpizkunde bat etorriko da, eta etorri dedilla; baiña euskerari dagokionez, orduan askoz gehiago hitz egiten zan. Baiña herria ere konturatu zaitezte lau millakoa zala, ta gaur hamasei millakua, ta kanpotarra arrotza dagola hemen asko, ta euskerak ez daukala lenoko indarrik eta kemenik, era hortatik begiratuta.

5. Euskara batuari buruzko iritzia

- **Erref**: ZAR-117/006
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:04:54. **Bukatu**: 00:07:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Euskarak beste bide batzuk hartu dituela dio; eta ez zaio gustatzen gaur egungo "laborategiko" euskara. Euskara batuari buruzko iritzia ematen du.

Transkripzioa
- Zer iruditzen zaizu euskerak egin duen aldakuntza?
- Aldakuntza, ez dakit onerakoa edo txarrerakoa. Orain bide berri batzuk hartu dira, ta guk beste era batea ikasi gendun. Orduan ere bazan Euskaltzaindia, baiña ez gaurko jokaerarekin. Eta hizkuntzaren aldetik, nik askoz gogozkoa det lehen ikasi nuana, orain ezarri nahi dutena baiño. Laboratorioko euskera iruditzen zait gaurkoa, naturaltasun gutxikoa.
- Orduan zu euskara zaharraren alde zaude, eta euskara batuaren aurka?
- Euskara batuaren premia danok ikusten degu, baiño euskara batua egiteko beste molde batzuk hartu zehar zirala usten det, herriari gehiago kaso eginda; ez erabat herria baztartu, zokoratu, hankaperatu, eta herriak orain egin diro, egin dio euskerari bizkar eman, ez det ezer jakin nahi. Penagarria da, baina euskaldun huts-hutsak, beste hizkuntzarik ez dakitenak, zenbatek eta zenbatek esaten dute gaur irakurtzen hasi, “gaurko euskera ez det entenditzen”; telebistan edo radiyoan entzuten jarri, ta “ez det ulertzen, ez dakit euskera besterik”. Hori baiño tristeo ta

negargarriagorik ez dago.
- Esan dizut ez naizela euskara batuaren etsai eta kontrario, euskera batua behar da. Baiña hartu diran molde edo metodo hoiek ez zaizkit onak iruditzen. Herriari jarraituz, herriaren hizketa poliki-poliki orraztuaz ta apainduaz egin behar zan batasun hori, eta herria alde bat utzi degu. Eta gaur ere, euskeraz jatorren egiten dutenak baserrietan eta herri koxkorretan daude, ta zenbat eta zarrago diran, haiek eta hobeto. Haiekin ikasten det nik euskera.

6. Euskararen egungo egoeraren kausak

- **Erref**: ZAR-117/008
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:09:08. **Bukatu**: 00:10:13
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Euskararen gaur egungo egoeraren kausak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Zeinen errua da euskera horrelako egoeran egotea?
- Milla gauza esan ditezke. Zorigaitzeko hogeita hamaseiko gerra hura izan ez balitz, gaur beste era batera egongo zan euskera. Jangoikuak bakarrik daki zenbat lan egingo zan. Etorri zan etorri zana, ta alde guztitik zigorra, kastigoa, ta ezer egitterik ez. Ta moztu, ta orduko gazte dana euskerantzat galdua gelditu zan. Gaur hasi da pixka bat, hasi da, baiña hainbesteko indarra hartu du erderak, ta hainbeste erdaldun daude; eta beste aldetik, euskaldun asko bat'e ajolarik gabeak, euskerarenganako maitasunik gabeak, hotzak, holakoak'e asko daude. Eta horrek kalte ikaragarria dakarkigu.

7. Bertso bat

- **Erref**: ZAR-117/010
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:11:08. **Bukatu**: 00:12:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertso bat botatzen du euskararen gainean.

Transkripzioa
- Bukatzeko, orain hitz egin duguna ikusiz, bota, mesedez, bertso bat.
- Euskera maite irten zaitea
Orain zauden katepetik
Gazte maiteok bazetozte, ta

Poz hartutzen det gogotik.
Arreta biziz jarraitu hemen
Bakoitza bere aldetik
Gure herria ateratzeko
Arrotz kulturan mendetik.

8. Txikitako lehenengo urteak

- **Erref**: ZAR-129/002
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:00:19. **Bukatu**: 00:01:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Elkarrizketatzaileak azaltzen du Basarri non jaio zen. Basarrik kontatzen du zazpi urte zituela joan zela Zarautzera bizitzera, eta zarauztar sentitzen dela, txikitan bizitako beste lekuen oroitzapen askorik ez baitauka.

9. Nola hasi zen bertsotan

- **Erref**: ZAR-129/003
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:01:48. **Bukatu**: 00:03:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Basarriren familiak taberna zuen Azken Portun, eta baserritar ugari inguratzen zen bertara. Bertso-giroa egoten zen han, eta, 14-15 urte zituela, bertso-saiotxoak egiten zituen Basarrik. Gaztelu bertsolariarekin bertsotan ibilitakoa da.

10. Kursaalean txapela irabazi zuenekoa

- **Erref**: ZAR-129/005
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:04:21. **Bukatu**: 00:06:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bere aitona eta aita bertsozaleak ziren. 1935ean, Kursaalean txapela irabazi zuen: egun hartan sekulako ikara zuen, etxetik apenas ateratako mutil koskorra baitzen. Lotsatia dela aitortzen du. Ez zuen espero txapela irabaziko zuenik.

11. Sortutako bertsoen ondarea

- **Erref**: ZAR-129/006
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:06:52. **Bukatu**: 00:09:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Normalean ez ditu gogoratzen botatako bertsoak. Lagun batzuek, ordea, haren ehunka bertso dakizkite. Ez du inoiz pentsatu idatzi dituen bertso guztien bilduma egiterik: pozik egingo luke, baina adina traba handia omen du horretarako.

12. Lehengo bertsolari zaharrak

- **Erref**: ZAR-129/007
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:09:08. **Bukatu**: 00:12:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Lehen bertsolaritza nolakoa zen azaltzen du: gai arruntak, eta askotan elkarren trapu zaharrak aipatzea. Gai horiek mugatu egiten zuten bertsolariaren etorria, eta horregatik orain ez dirudi hain onak zirenik. Hala ere, Basarriren iritziz, bertsolari azkarrak eta biziak ziren, eta haiei esker etorri ziren ondorengoak. Lehengo bi bertsolariri buruz hitz egiten du: Gaztelu eta Txirrita.

13. Bertso-txapelketa eta arauak

- **Erref**: ZAR-129/008
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:12:01. **Bukatu**: 00:12:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
1936ko txapelketan, ez zuen irabazi. Izan ere, arauek zioten irabazi eta handik hiru urtera arte txapeldunak ezin zuela berriro parte hartu txapelketan, baizik eta epaimahaikide izan behar zuela. 1936ko gerraren ondorioz, ordea, ez zen ospatu txapelketarik denbora batean.

14. 'Uztapide'

- **Erref**: ZAR-129/009
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:12:56. **Bukatu**: 00:15:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Manuel Olaizola Uztapideri buruz hitz egiten du: "bertsolari bezala Donostian jaio zen", ahots ederrekoa eta maila handiko bertsolaria omen zen. Gerra iritsi zenean, ordea, Basarrik 7 urte eman zituen batetik bestera, eta Uztapiderekin hartu-emana galdu zuen. Etxera itzuli zenean, hala ere, Uztapiderekin batera abestea tokatu zitzaion bertso-saio askotan.

15. Gerra ostean, norbere burua zentsuratzen bertsotan

- **Erref**: ZAR-129/010
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:15:47. **Bukatu**: 00:16:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Gerra ostean, ezin zen nahi zen guztia esan, eta bertsotan mingainari kosk egin behar izaten zioten maiz, ondorioen beldur.

16. Bertsolari bizimodua

- **Erref**: ZAR-129/011
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:16:38. **Bukatu**: 00:17:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsolari gisa izandako bizimoduari buruz hitz egiten du, batetik; eta bestetik, zer lanetan aritu zen, eta nola prestatu zen bertsolari izateko aipatzen du.

17. Gizon aipagarriak

- **Erref**: ZAR-129/012
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:20:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
"Harri" gizonari buruz hitz egiten du, gizatasun handikoa omen zen. "Exeta" ere aipatzen du. Basarrik ez du inoiz apusturik egin.

18. Nabarmentzeko moduko bertsolari zaharrak

- **Erref**: ZAR-129/013
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:20:01. **Bukatu**: 00:21:57
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Pedro Mari Otañoren lana da Basarriren gogokoena. Haren bertsoak zergatik gustatzen zaizkion aipatzen du. Xenpelar ere oso gogoko zuen, eta Bilintx ere oso ona zela dio.

19. Bertsolaritzaren egoera gaur egun

- **Erref**: ZAR-129/014
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:21:57. **Bukatu**: 00:23:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Gaur egun, bertsolaritza zer egoeratan dagoen azaltzen du. Bere ustez, maila oneko 15-16 bertsolari badaude.

20. Bertsoen neurria lehen eta orain

- **Erref**: ZAR-129/015
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:23:26. **Bukatu**: 00:25:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Lehengo bertsolariek erabiltzen zituzten neurriak oraingoek erabiltzen dituztenekin alderatzen ditu.

21. Aldaketak bertsolaritzan

- **Erref**: ZAR-129/016
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:25:16. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Gaur egun bertsolaritza aldatu egin da, bai, baina Basarriren ustez beharra ere bazegoen. Lehen erabiltzen ziren gaiek bertsolaritza lokaztu egin zutela uste du; eta horregatik, errespetuzko zenbait jendek ez zituela bertsolariak entzun nahi izaten dio.

22. Bertsolaritzaren etorkizuna

- **Erref**: ZAR-129/017
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:28:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Bertsolaritzak jarrai dezan, euskarak bizi behar duela dio Basarrik. Bertsolariek ez badute entzulerik, akabo bertsolaritza. Tamalez, euskarak gero eta oihartzun gutxiago duela gizartean esaten du Basarrik.

23. Omenaldia Zarautzen

- **Erref**: ZAR-129/018
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:30:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Basarriri ez zaizkio omenaldiak gustatzen, eta berari egingo ziotela aipatu ziotenean, ezezkoa eman zuen. Hala ere, egoera ikusita (herrikoek egina, urteroko ohitura bihurtzeko asmoa...) derrigorrean bezala esan behar izan zuen baietz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com